



Usurbilgo Udala



## 2015EKO URTARRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.  
Josu Portu Alzaga J.  
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.  
Enara Arbizu Irurtia A.  
Iñaki Ugarte Aguirre J.  
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.  
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.  
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.  
Miren Josune Urquia Carrera A.  
Josune Urkola Larrarte A.  
Ricardo Crespo Rubio J.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin A.

Ezin-etorria adierazi du: Jose María Rivadeneyra Sicilia Jk.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko urtarrilaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

### **1.- 2014/10/14KO EZOHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek, 2014ko urriaren 14ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO ABENDUAREN 15ETIK 2015EKO URTARRILAREN 16RA (2014/1167 – 2015/0028)**

Alkatetzak 2014ko abenduaren 15etik urtarrilaren 16ra bitartean (2014/1167–2015/0028) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala



Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- USURBILGO LARRIALDIETARAKO UDAL PLANA ONARTZEA.**

Alkateak gai honi buruzko azalpenak eman ditu.

Orain indarrean zegoen plana 1999an onartutakoa zela eta zaharkituta zegoenez eguneratzea beharrezkoa ikusi dela esan du.

Larrialdietarako udal plana egitea aurreko enpresa berdinari, hau da, TEKNIMAP enpresari esleitu zitzaiola esan du. Enpresa honek Gipuzkoako udalerrri gehienetako planak burutzen dituela gehitu du.

Larrialdi planek arriskuak prebenitzeko eta hondamendiak gertatzen direnean pertsonak eta ondasunak babesteko esparru organikoa eta praktikoa arautzen dituztela esan du. Era berean, mekanismo guzti horiek martxan jartzeko udaletxeak dituen baliabide eta bitartekoak ere jasotzen dituela gaineratu du.

20.000 biztanle baino gehiago dituzten herriak behartuta daudela esan du plan hauek burutzerara, baina Eusko Jaurlaritzak gomendatzen duena da 5.000 biztanletik gora duten herriek ere egitea.

Beraz, Usurbil ez litzatekeela behartuta egongo plana egitera esan du, hala ere, ikusita lehendik egin zegoela baina zaharkituta geratu zela, pentsatu zuten momentu ona zela eta egin beharreko zerbait zela.

Plan hau behin plenoak onartu ondoren EAEko Herri Babeserako Lurralde Planarekin txertatzen dela azaldu du.

Planak sektorizazio bat egiten duela adierazi du eta Usurbilen sei sektore daudela zehaztu du. Halaber, planean arriskuen identifikazioa ere egiten dela esan du, hala nola, lur higidurak, uholdeak, baso suteak, industria eta teknologia jarduerak, hiri suteak, jendetza handiak, etab.

Halaber, planean zehazten direla esan du krisi mahaia nola eratzen den, bilguneak zeintzuk diren eta larrialdia segun eta nolakoa den bakoitzari dagokion ekintzarako taktika.

Udal Larrialdietarako Plana aktibatzen denean SOS Deiak-i abisatu behar zaiola aditzera eman du, eta bertatik tekniko bat etorriko litzatekeela udaletxearekin batera koordinazio lanak egitera.

Udal baliabide eta bitarteko guztiak ere identifikatzen direla planean adierazi du.

Plana Babes Zibilerako Batzordeari igortzen zaiola esan du honek homologatu dezan. Halaber, urtero planaren eguneraketa bat egiten dela eta hori udaltzaingoaren esku dagoela zehaztu du.



Usurbilgo Udala



Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen erizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: UD.01/2014-0001

### AURREKARIAK

Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legea eta EAeko Herri Babeseko Plana onartzen duen eta larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman dituen integrazio-bideak arautzen dituen ekainaren 24ko 153/1997 Dekretua kontutan izanik, Usurbilgo Udaleko Plenoak 1999ko urriaren 26an larrialdietarako udal plana behin behingoz onartzea eta berau jendaurrean jartzea erabaki zuen. Erabaki Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 223. zenbakian argitaratu zen 1999ko azaroaren 22an. Inolako erreklamaziorik tartekatu ez zenez, behin betikoz onartutzat jo zen. Larrialdietarako udal plana TEKNIMAP enpresak idatzi zuen.

### LARRIALDIETARAKO PLANA EGUNERATZEA

Larrialdietarako Plana onartu zenetik igarotako urteak kontutan izanik, garrantzitsua ikusi da Plana errebisatzea eta berri bat prestatzea. Hala Alkateak, 2014ko uztailaren 17an, 2014/0699 dekretuaren bidez, Usurbilgo Larrialdietarako Udal Plana eguneratzeko lana TEKNIMAP enpresari esleitzea erabaki zuen.

TEKNIMAP enpresak, dagokion eguneratzea prozesua burutu ostean, 2014ko azaroaren 30ean aurkeztu du Larrialdietarako Udal Plan berria.

### LARRIALDIETARAKO UDAL PLANA

Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeko 13.1 artikuluan zehazten den arabera, larrialdi planek xedatzen dituzte arrisku larrian, hondamendi edo hondamendi publikoen kasuetan, pertsonak eta ondasunak babesteko esparru organikoa eta praktikoa, eta baliabideak eta bitartekoak mugiarazteko mekanismoak eta baita eskuhartzera deitutako administrazioen arteko koordinatzeko eskema ere.

EAeko Larrialdietako Planaz gain, foru-erakundeetako lurralde-planak edo udal planak onar daitezke. EAeko Herri Babeseko Plana onartzen duen eta larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman dituen integrazio-bideak arautzen dituen ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuk onartzen duen EAeko Herri Babeseko Planean ezartzen denez, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalek larrialdietarako bere udal plana egin eta onartu beharko dituzte. Ildo berean zera zehazten da hitzez hitz: “Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dezake lurralde-planak egitea, onartzea eta mantentzea, 5.000 biztanle baino gehiago duten euskal udalerrietan edo udalerriek dituzten berariazko ezaugarriengatik komenigarria denean”.



Usurbilgo Udala



Beraz, Usurbil ez legoke derrigortua larrialdietarako udal plana onartzera. Hala ere, udal gobernu taldeak, 1999ko izandako irizpideei jarraipena emanez, larrialdietarako plana eguneratu eta berriro onartzea hobetsi du.

Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeko 7.b artikulua xedatzen duenaren arabera, udaleko organo agintedunek onartuko dituzte udal planak.

Udaltzainburuak, Pello Zubeldia Maiz jaunak, TEKNIMAP enpresak aurkeztutako Larrialdietarako Udal Plana aztertu ostean, 2015eko urtarrilaren 15ean, ondoko idatzia helarazi du:

#### USURBIL HERRIKO LARRIALDI PLANA 2014KO AZAROA

2014ko maiatzaren 30ean, Usurbil herrirako Larrialdietarako Plana eraberritzeko eskaera luzatu nion udalari. Bertan adierazten nuen, 1999ko urriaren 26ean onartu zen Plana indarrean jarraitzen zuela eta eguneratzeko beharra zegoela. Honekin batera, garai hartan TEKNIMAP enpresak txostena egin zuenari aurrekontua eskatu eta eskaerari atxikitu nion .

2014ko uztailaren 17an, aipatutako proiektua TEKNIMAP enpresari esleitzea erabaki zen eta aurkeztu zuen aurrekontua onartu zuen udalak. Dekretua 2014/0699.

2014ko azaroan, enpresa honek Udal Larrialdietarako Plana aurkeztu du eta bertan ondorengoak kontutan hartu dira

- 1/1996 LEGEA, apirilaren 3koa, Larrialdiak kudeatzekoa. Eusko Legebiltzarrak 1994ko apirilaren 18an onartutako Legea.
- 153/1997 DEKRETUA, 1997ko ekainaren 24koa, Herrizaingo Sailak Larrialdiei aurrigiteko bidea - LABI - onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena

#### ESKAERA

Adierazitakoa kontutan artuta TEKNIMAP enpresak Usurbil herrirako aurkeztu duen Larrialdi Plana udalak ONARTZEA eskatzen da

Eta jakinaren gainean egotearren eta dagozkion ondorioetarako adierazten dut, Usurbilen 2015eko urtarrilaren 15ean

Udaltzainburua  
Pello Zubeldia Maiz

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 20ean egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua eta Jone Urdanpilletaren aldeko botoekin eta



Usurbilgo Udala



Josune Urkolaren abstentzioarekin, egindako erizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

## **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** Usurbilgo Larrialdietarako Udal Plana onartzea.

**BIGARRENA:** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeko 16.3 artikulua xedatzen duenaren arabera, Usurbilgo Larrialdietarako udal plana Babes Zibilerako EAeko Batzordera bidaltzea, udal plana homologa dezan.

**HIRUGARRENA:** Larrialdietarako Udal Plana urtero errebisatuko da: bitarteko berriak zehaztu, telefono berriak jarri, arrisku eta elementu ahulak eguneratu, krisi-mahaia berritu ... Eguneratze hauek Alkateak onartuko ditu.

**LAUGARRENA:** Ohiz kanpoko berrazterketak, izandako esperientziek edo arauen nahiz antolaketaren aldaketek planaren funtsezko alderdiak ukitzen dituztenean, behar direnean burutuko dira eta plenoak onartuko ditu.”

Bozketa egin denean honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

### **4.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-91 (MUTIOZABAL) EREMUKO HEU 91.4 EXEKUZIO UNITATEKO XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Alkateak erizpenari buruzko azalpenak eman ditu. Felix Aranguren eta Dolores Errastik Mutiozabal eremuko exekuzio unitateko xehetasun azterlana aurkeztu zutela adierazi du. 2014ko azaroaren 10ean dekretu bidez hasieraz onartu zen eta ondoren jendaurrean jarri zen 20 lanegunez, tarte horretan ez dela inolako alegaziorik aurkeztu gaineratu du.

Eremu hau Aginagako Sekaña jatetxearen atzeko aldean dagoela kokatuta esan du eta sotoa eta bi planta dituen etxe bat dela zehaztu du. Arkitektoaren txostenaren arabera eraikigarritasuna, lerrokadurak, profila, etab. ondo betetzen ditu, beraz, ez dagoela inolako arazorik behin betikoz onartzeko esan du.

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2014-0013



Usurbilgo Udala



FELIX ARANGUREN GALARRAGA jaunak eta DOLORES ERRASTI BENGOTXEA andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) Eremuko HEU 91.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun Azterlana aurkeztu zuten dagokion izapidetzea izan dezan.

2014ko azaroaren 10ean, Ordezko Alkateak 2014/1069 zenbakidun dekretuaren bidez zera erabaki zuen:

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) Eremuko HEU 91.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa hasieraz onartzea.

**BIGARRENA:** Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (219. Zenbakia): 2014-11-17
- BERRIA: 2014-11-13
- GARA: 2014-11-12
- EL DIARIO VASCO: 2014-11-13

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean, EZ da inolako alegaziorik tartekatu.

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 20ean egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua eta Jone Urdanpilletaren aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Plenoari egindako proposamena kontutan hartuta, Udaltza Plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) Eremuko HEU 91.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa behin betikoz onartzea.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) Eremuko HEU 91.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

**HIRUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) Eremuko HEU 91.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketaren behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.



Usurbilgo Udala



**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei ematea, Xehetasun-Azterketaren izapidetze eta argitalpen gastuak helaraziz.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

Bozketa egin denean honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luisdari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

## **5.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.**

Luisdari Ormaetxeak hitza hartu du eta adierazi du duela hiruzpalau egun Urkullu lehendakaria herrian izan zela Elhuyar Fundazioko instalazioak bisitatzeko eta ikusi ahal izan dituen berrietan eta argazkietan ez duela ikusi udaletxeko ordezkari politikorik. Honen zergatia jakin nahiko lukeela adierazi du.

Alkateak erantzun dio ez zirela gonbidatuak izan eta berririk ere ez zutela izan.

Josu Portuk adierazi du duela urtebete inguru Michelinera etorri zela eta Pablo ez zela joan, ez zela gonbidatua izan.

### **5.1.- USURBILGO BAKE EPAITEGIKO LANGILEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ERREGISTRO ZIBILAREN KUDEAKETA.**

Alkateak adierazi du Bake epaitegiko langileek aurkeztu dutela mozio hau. PPren azken ekimena erregistro zibilak pribatizatzeke saiakera dela esan du.

Berak dakienez mozio hau ELA, LAB, CCOO, UGT eta CGTk adostu duten testua da eta iaz Gasteizko Legebiltzarrean ere EH Bildu, PNV eta PSOEek onartu zuten mozioa da, beraz, nahiko oniritzi jaso dituen.

Mozioan aipatzen dela esan du herri administrazioak diru inbertsio handia egin duela azken urte hauetan erregistro zibilaren modernizazioan, 128 milioi eurotik gora inbertituz teknologia berrietan. Orain, berriz, erregistro zibila esku pribatuetan utzi nahi omen da, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanez, honek suposatzen duen guztiarekin. Horrek lanpostuen galera ere ekarriko duela aipatzen da.



Usurbilgo Udala



Amaitzeko, mozioko azken puntuak irakurri ditu.

Usurbilgo Bake Epaitegiko langileek aurkeztutako mozioa aztertu dute batzarkideek eta aho batez onartu dute, honela dio mozioak:

“Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitatasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzeko; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratzeko libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanaz, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Iaz, otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

1. 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.

2. Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege





Usurbilgo Udala



Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.

3. Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jarduera izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.

4. Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.

5. Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuera pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.

6. Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta, Usurbilgo Udaleko Udalbatza Osoak honako puntu hauek onartu ditu:

♦ Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka agertzen da.

♦ Halaber, bake-epaitegiek eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoek izan behar dute Erregistro Zibilak kudeatzen dituztenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.

♦ Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat



Usurbilgo Udala



eginda, udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzala.”

Bozketa egin denean honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

## **5.2.- PLATAFORMAREN IZENEAN VICTORIA ANGELES MOLINAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: RGI-AREKIN GERTATZEN ARI DIREN MURRIZKETAK ETA ARAZOAK.**

Jone Urdampilletak adierazi du mozio hau Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren gehiegizko ordainketa batzuen ingurukoa dela, zehazki interesatuek jaso duten gehiegizko diru hori itzultzeko Lanbidek hartu duen erabakia eta modua ez direlako egokiak izan.

Publikotik afektatuetako batek hitza hartu du eta adierazi du: “*Yo soy una de las afectadas de los pagos indebidos y se nos exigen unas cantidades que no nos demuestran que son reales. Las alegaciones se las saltan a la torera.*”

*Recibimos las cartas que van automatizadas, no se respetan las alegaciones como van en turno, sino que éstas ya automáticamente pasan directamente por delante de las que ya están, que no tienen nada que ver con el tema de los pagos indebidos.*

*Se nos está cobrando el 30% de una cantidad que ellos dicen, sin verificar, sin aclarar. No tenemos modo ni de demostrar ni de hacer ver que esas cuentas son reales, que esas cantidades son reales. Consideramos que ya que ha sido un pago indebido, una mala acción de una mala gestión, que por lo menos los afectados tengamos una forma de pago un poco más asequible a los cobros que estamos teniendo, porque si se supone que estamos cobrando una RGI, que es una ayuda social, me quitas el 30%, me vuelves a dejar en la exclusión social otra vez.*

*Somos 80.000 familias afectadas, que no personas, y hay mucha gente que está en exclusión social sí o sí.*

*No son cobros indebidos son pagos indebidos, es una mala gestión por parte de ellos. Una vez demostrado que es un pago indebido y la cantidad, después de eso se debería negociar la cantidad que podamos permitirnos pagar.”*



Usurbilgo Udala



Jone Urdepilletak aipatu du hitz egin duena Victoria Angeles Molina herritarra dela, eta herritar kaltetu moduan hitz egin duela.

Jarraian, mozioa irakurri du.

Ricardo Crespok hitza hartu du eta galdera bat egin du. *“Como ha explicado están recibiendo la RGI, y por lo que nos comenta a los afectados por esta situación les quitan el 30%, yo quiero preguntar si el ayuntamiento de Usurbil a estos afectados mediante las AEs les está ayudando para pagar por ejemplo las facturas eléctricas, porque creo que las dos ayudas son compatibles, y si no para intentar buscar alguna ayuda.”*

Jone Urdepilletak erantzun dio herritar honi egin duen eskaera momentuz onartu egin zaiola.

RGI-arekin gertatzen ari diren murrizketak eta arazoak direla-eta, batzarkideek Plataformaren izenean Victoria Angeles Molina andreak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio testuak:

- a) Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jendaurrean barkamena eskatzeko eta argitzeko zorra Lanbidek sortu duela eta ez hartzaileen iruzurrak, eta diru-sarrerak bermatzeko errentan eta etxebizitzaren prestazio osagarrian bidegabeko kobrantzak itzuli beharrak kaltetu dituen pertsonen banan-banan azaltzeko zorraren arrazoiak eta epe zehatza; eta itzulketa egiteko garaian legez ezarritako epeak aplikatzeko, kaltetutako pertsona bakoitzaren baliabide ekonomikoak kontuan hartuta eta geroratze-epeak ezartzeko aukera erraztuta, eta atzeraeragin-irizpiderik ezarri gabe baldin eta horrek eragotziko balu pertsonen bere baldintzak aldatzea eta zorra ez sorraraztea.
- b) Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lanbidek eragindako ordainketa okerrak ez kobratzeko, inondik inora, zorra erreklamatzearen ondorioz errentaren hartzaileak ezingo balu bizitza duin bat egin. Halaber, eskatzen diote hartzaileek bere errenta osorik jasotzeko.
- c) Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio errespetatzeko eta betetzeko errentaren hartzaileekin izandako komunikazio guztietan prozedura zein berme juridiko eta legal beharrezkoak, besteak beste, Arartekoak esandakoak, ziurtatzearen hartzaileek merezi duten tratua duina jasoko dutela eta ebazpenak banakakoak eta arrazoituak izango direla, eta ez automatizatuak.
- d) Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lanbidek eragindako okerreko ordainketek eragin duten egoera tamalgarriari azkena emateko, bere jarrera zuzentzeko eta jarraitu beharreko prozedura bideratzeko lehenbailehen; hau da, orain arte ohikoak izan diren ordainketa okerrak amaitzeko eta konpromisoa



Usurbilgo Udala



hartzeko bi hilabeteko epean errentaren hartzaileen espedienteetako aldaketak berme guztiekin kudeatuko direla, informazio zehatza emanaz (kopuruak, kontzeptuak eta hilabeteak argi adieraziz), eta alegazioak aurkezteko epea irekitzeko, eta, segidan, ordainketa egiteko eskaera bidaltzeko, eta horretarako behar diren protokolo eta prozedura guztiak martxan jartzeko.

- e) Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio behar bezala betetzeko bere obligazioak, Lanbidek baliabide tekniko eta pertsonal nahiko dituela bermatuz.
- f) Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartzeko gizarte-babeseko politikak, osasuna, hezkuntza eta pentsioak bezala, ezinbesteko inbertsioa baita, injustizia-arrazoiengatik edo gerora sortutako arrazoiengatik gertatzen diren desberdintasun-egoerak zuzentzeko. Era berean, blindatu egin behar dira, horien existentzia mehatxatu nahi dutenen aurrean.
- g) Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartzeko gizarte-babeseko politikak, beharrezkoa balitz berrikusteko RGIren funtzioa benetan berreskura dezagun, pertsonen gutxieneko duintasun bat bermatzeko eta oinarritzko beharrak estaltzeko nahikoak diren gutxieneko sarrerak guztiz ziurtatzeko, horretarako beharrezkoak diren aurrekontu-partidak bideratuz.

Bozketa egin denean honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

**Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.**